

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AIARAKO UDALA

**Kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan 2024. urtean dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onesten dituen Alkatetzaren 2024ko apirilaren 16ko 2024/211 Dekretuaren laburpena**

BDNS (Identif.): 755118.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artiku luetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/conocatoria/755118>.

#### Lehenengoa. Onuradunak

Dirulaguntza eskatu ahal izango du 2024an kultur, kirol eta gizarte programak edo jarduerak sustatu nahi dituen irabazteko xederik gabeko edozein elkarterek edota partikularrek, helburu izanik Aiarako udalerrri osorako onura publikoko edo gizarte intereseko jardunak sustatzea, eta betiere oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Etxaurren ikastolako gurasoen elkarteak eta Aiarako irakaskuntza zentroak ere onuradun izan daitezke, baldin eta deialdi honetan ezarritako xedeetarako erabiltzen badituzte dirulaguntzak eta diruz lagundutako jarduerak eskola eta irakaskuntza esparrutik kanpokoak badira.

Halaber, Olentzero eta Erregeen desfilea egiteko dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte administrazio batzarrek, baldin eta deialdian jasotako helburuak badituzte.

#### Bigarrena. Xedea

Udal programen osagarriak diren programak garatzea, hain zuzen ere, eskatzaileek sustatutako kultura, kirol eta gizarte arloko jarduerak, helburu izanik jardun publikoko edo gizarte intereseko ekintzak sustatzea, eta, horrela, udaleko atalek haien jarduera eremuetan aurreikusitako helburuak lortzen laguntzea.

#### Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

ALHAOn argitaratuko dira, baita DDBNn ere.

Oinarriak eta eskaera eredia Aiarako Udalaren web orrian daude eskuragarri: <https://www.aiarakoudala.eus/eu/>.

#### Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honen diru zuzkidura 35.000,00 euro da.

Elkarte batek, 2024an jarduerak eta proiektuak egiteko, gehienez ere 6.000,00 euro eska ditzake.

#### Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea

Hilabete, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik.

#### Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskaera aurkeztean, hari dagozkion eranskinak beteta aurkeztu beharko dira, eta justifikazio agiria aurkezten denean, hari dagozkionak.

Justifikazio agiriak 2025eko urtarrilaren 20ra arteko epean aurkeztu behar dira.

Arespalditza, 2024ko apirilaren 16a

Alkate-lehendakaria  
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA